

Euskara erabiltzearen erraztasunaren/zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak

Maria-Jose Azurmendi Ayerbe
EHUko Gizarte Psikologiako katedraduna,
BAT Soziolinguistika Aldizkariaren zuzendaria

Lan honetan nahi izan da honako galderei erantzutea: euskararen erabileran ba ote du eraginik pertsonaren alderdi emozionalak? euskara erabiltzearen erraztasunaren/zailtasunaren eragin emozionala nolakoa da eta nolako ondorioak izan ditzake? Horiei erantzuteko honako atalak ireki ditugu: 1) Sarreran adierazten da ikuspegi psikosozial psikologistari helduko zaiola, pertsonak duen erdigunetasuna edo zentralitatea azpimarratuz, eta alderdi unibertsalak jarraituko direla. 2) Euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna gaian ezagutzen ditugunak eta ez ditugunak adieraziko dira. 3) Emozioa prozesu psikosozial berezi gisa nola uler daitekeen adieraziko da. 4) Emozioaren kokapena ikuspegi psikosozialean adieraziko da, zientziagintza modernoan eta postmodernoan duen lekua ikusiz. 5) Laburpen moduko batean, zenbait ondorio atera eta azken hausnarketak eta proposamenak egingo dira.

This piece of work has set out to answer the following questions: Does a person's emotional side influence the use of Basque? What is the nature of this emotional influence on the ease/difficulty of using Basque? And what kinds of consequences can this have? We have developed the following sections in order to respond to these questions: 1) The introduction establishes that the psychosocial perspective will be mainly psychological when emphasising the centrality of the person, and that universal aspects will be followed. 2) The ease/difficulty of using Basque by pointing out what we know and what we do not know. 3) How emotion can be understood as a special psychosocial process. 4) The part emotion plays in the psychosocial perspective when looking at the place it occupies in modern and postmodern science. 5) A summary, drawing a number of conclusions and making final reflections and proposals.

1. Sarrera¹

Euskara erabiltzearen erraztasunak eta zailtasunak aztertzerakoan, ikuspegi oso zabala eta konplexua erabili beharko litzateke, orain erabiliko duguna baino askoz ere konplexuagoa. Baina mugatu beharrean, eta *emozioak lantzea* delako helburu nagusia, artikulu honetarako aukeratzen ditut, nagusiki: 1) *ikuspegi psikosozial psikologista* erabiltzea, 2) *persona mailan* oinarritzea, 3) *alderdi unibertsalak* gehiago azpimarratzea.

Bestalde, aipatutako mugak ere zabalegiak eta konplexuegiak dira bere osotasunean lantzeko; horregatik, berriz ere zenbait aukera egin beharko ditugu orain, gaia nahiko modu sinplifikatuan adieraziz. Komeni da esplizitatzea nolako *mugak* jarriko ditugun gaia aztertzean, nolako azpimarratzeak egitea aukeratzen dugun, mikroteorizazioan gehiago sartuz. Hala ere, asmoa behintzat da esango direnak nahiko esanguratsuak izatea, orain arte gutxi erabili ditugun alderdiak kontuan hartzea, betiere gaiari egokituz nahiko baliagarriak izatea lortzea.

1.1. Ikuspegi psikosozial psikologista

Ikuspegi psikosoziala baliatuko dugu, nagusiki, psikologiaren eta soziologiaren artean kokatzen dena. Hau da: 1) *psikologikoki*, gizabanakoan gertatzen direnak aztertzen dira, 2) *soziologikoki*, gizartean gertatzen direnak, 3) *psikosozialki*, berriz, gizabanakoaren eta gizartearen artean gertatzen direnak aztertzen dira.

- Ikuspegi psikosozialean ere, gutxienez, bi tradizio bereizi behar dira. Batak, *psikosozial psikologista* deitu ohi denak gizabanako bakoitzaren baitan gertatzen direnak modu autonomoagoan edo independenteagoan aztertzen ditu, gero eta biologistagoa eta individualistagoa da, moduren batean esateko. Egunean, *indar handiena* duena da, ikuspegi *psikosozial psikologista* hau. Hau ulertzeko urrutira joan beharko genuke, orain ezin duguna; baina hau koherentea da eguneko ideologia (neoliberalismoa, adibidez) eta politika (eskuindarragoa) nagusiekin (hala da baita eguneko gizarte-zientzien joera nagusia ere, soziologian bertan ere).
- Besteak, ikuspegi *psikosozial soziologista* deitu ohi denak, gizabanakoaren baitan gertatzen direnak modu interaktiboagoan aztertzen ditu, gizartean kokatuta egotea eta gizartearekin harremanak izatea azpimarratzen ditu, gizabanakoa bera aztertzeko eta azaltzeko. Honetan, gizabanakoa ulertzen da modu interdependentagoan (horregatik ideologia eta politika ezkertiarretik (beti erlatiboki) gertuago dago).

Dugun gaia aztertzeko, *euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna* hain zuzen, badirudi beharrezkoak direla bi ikuspegiak; baina orain landuko duguna *psikologista* izango da.


1. Euskararen Gizarte Erakundearen KONTSEILUAK antolatutako "Euskararen erabilera areagotzeko, Hizkuntza Politikaren bila" izeneko mintegian aurkeztutako lana da, Donostiako Koldo Mitxelena aretoan, 2006/06/7an.

1.2. Pertsona maila

Pertsona izango da hartuko dugun analisi eta aplikazio maila nagusia: erraztasunak/zailtasunak, emozioak eta emozioen ondorioak, pertsonak zuzenean bizitzen dituen egoerak direlako, nahiz eta azken arrazoiak eta esplikazioak askotan pertsonatik kanpo jarri behar ditugun, "euskararen erabileraren erraztasunak/zailtasunak" gaia aztertzeke, adibidez.

Pertsona aztertzeke: 1) ikuspegi *psikosozial psikologistan*, pertsona nahiko modu autonomoagoan aztertzen da, 2) baina ikuspegi *psikosozial soziologistan*, pertsona aztertzen da modu dependenteagoan, analisi eta aplikazio maila ezberdinak gehiago kontuan hartuz (pertsona arteko maila, talde barnekoa, talde artekoa, erakundeak, instituzioak, mugimendu sozialak, hizkuntza-komunitatea, estatua...). Nahiz eta bi ikuspegiak beharrezkoak diren orain dugun aztergaia lantzeko, artikuluan ikuspegi psikologista azpimarratuko dugu.

Orain arte esandakoaren ulermena errazteke, ondoko irudia proposatzen dugu hemen:



1.2. Alderdi unibertsalak

Beste puntu bat ere kontuan hartu beharrean gaude, *zientziagintzan* azpimarra daitezkeela: 1) gehiago *alderdi unibertsalak*, orokorrak, gizabanakoa ulertzeko erabiltzen diren lege unibertsalak erabiliz, 2) ala gehiago *alderdi bereziak*, partikularrak, pertsona bakoitzaren baitan diren berezitasunak azpimarratuz. Artikulu honetan, *alderdi unibertsalak* azpimarratuko ditugu gehienbat.

2. Euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna

Euskara erabiltzerakoan *erraztasunak eta zailtasunak* izaten dira gurean, handiagoak edo txikiagoak alderdi ezberdinen arabera (lurraldea, arloa, funtzioak, adina...), besteak beste, *pertsona mailan* adierazten direnak. Batzuk ezagutzen ditugu, beste batzuk ordea ezezagunak zaizkigu.

2.1. Ezagutzen ditugunak

Orain arte egin diren ikerketen emaitzak kontuan hartu behar dira, noraino daki-gun jakiteko eta ebaluatzeke. Hala, badakigu, neurri batean behintzat, euskara asko/gutxi erabiltzen dela aldagai batzuen arabera. *Zerbait ezagutzen dugu*, adibidez:

- Pertsonaren *euskararen ezagutza mailaren garrantzia*: erdararen (espainiera ala frantsesa) ezagutza maila bezalakoa edo handiagoa ez bada, gehiago erabiltzen da erdara euskara baino, errazagoa gertatzen delako.

- Pertsonaren *euskararen ezagutza askotarikoaren garrantzia*: nahikoa egokitu den ala ez, bizitzaren behar berezi guztietarako, hala nola familian erabiltzeko, bestelako eremu sozialetan, lanean, aisialdian, testuinguru formalean eta informalean; adibidez, horrela esplikatzen nahi da hezkuntza barruan euskara erabiltzen duten ikasleek hezkuntzatik kanpo ez dutela erabiltzen, ezin dutelako, euskara ezagutza mota sinpleegia dutelako.
- *Euskararen presentziaren dentsitatea*, pertsona bakoitzarekin zuzenean lotzen den *sarean*: familian, lagunartean, lan-munduan...; hau garrantzizkoa da, jakinda gero eta nekezagoa dela sareak izatea: itxiak, iraunkorrak eta hautazkoak, eta abar; sareak gero eta pluralagoak eta konplexuagoak ditugu, pertsonaren kontrolatik gero eta urrunago daude.
- *Euskararen presentziaren dentsitatea*, pertsona bakoitzarekin zeharka lotzen diren *guneetan*: eremuak, arloak, zonak, testuinguru publiko eta pribatuak, mundu ofiziala eta soziala... Gune gehienak beharrezkoak gertatzen dira pertsonarentzat, ez borondatezkoak, gehienak nahitaezkoak eta ez hautazkoak, horrela pertsonaren kontrolatik kanpo gelditzen dira.
- *Pertsona bakoitzaren ezaugarri psikosozial* batzuen arabera, adibidez: 1) euskararekiko *identitate* handiak errazten du euskararen erabilera; 2) euskararekiko *motibazio* mota batzuek (integratzaileak, instrumentalak, komunikatiboak...) eragin handiagoa dute, beste mota batzuek baino, testuinguru bakoitzean pertsonak lortu nahi dituen helburuen arabera, errazagoa ala nekezagoa izateko; 3) euskararen aldeko/kontrako *jarrerak* izatea: horren arabera, euskara erabiltzea errazagoa/nekezagoa izango delako; 4) euskara erabiltzea lortzeak sortzen dituen *emozio positiboak*: poza, ongi sentitzea, eta abar, asko erraztuko dute euskara erabiltzea.

2.2. Ezagutzen ez ditugunak

Badaude beste arrazoiak ere, ikuspegi psikosozialaren barruan, eta pertsonarekin lotzen direnak, aztertutako izan ez direnak "euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna" gaia lantzean. *Ez dugu ia ezer ezagutzen*, adibidez:

- Pertsona bakoitzaren *nortasunezko ezaugarri psikologikoen garrantzia*, pertsonaren nortasun motaren garrantzia; adibidez: *dependentea/independentea* izatea, egozentrikoa/alterzentrikoa izatea, eta abar, adibidez egoera nekezetan euskara erabiltzea erraztuko/zailduko dutenak.
- Pertsona bakoitzarekin lotzen direnak ere, baina zehazkiago, sozializazioaren bitartez gizartean sortzen diren estilo eta arau nagusiak noraino barneratuta eta onartuta dituen, pertsonaren *prototipikotasunaren neurria* handia/txikia den, nola funtzionatuko duen aurrerako: zenbat eta prototipikoagoa izan, orduan eta errazago beteko ditu arau sozialak; adibidez, arau sozial batek haxe diosku: komunikazio-gertaeran nahikoa dela batek euskara ez jakiteak, denak erdarara pasatzeko.
- Pertsona bakoitzaren *ezaugarri psikosozialak*, erabiltzen dituen prozesu psikosozial nagusiak zeintzuk diren (motibazioak, emozioak...), egiten dituen portaerak azaltzeko, euskara erabiltzean adibidez, nolako eragina izango duten azaltzeko. Orain, *emozioen garrantzia* azpimarra dezakegu.

- Pertsonak izan dezakeen *libertate gradu* ezberdinen garrantzia, neurri batean harreman-gune bakoitzarekin handiagoak edo txikiagoak izango direnak, euskara erabiltzea aukeratzea erraza/nekeza izango den azaltzeko.
- Pertsonak izango duten euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko beharra, berriz ere harreman-gune bakoitzaren arabera, euskara *beharrezko/erredundante* gertatzen den, jakinda erredundantziaren kontrako joera dugula: 1) zenbat eta beharrezkoagoa izan euskara, orduan eta errazagoa izango da erabiltzea; 2) eta alderantziz, zenbat eta soberago gertatu, orduan eta nekezagoa izango da erabiltzea. Gogoratu behar dugu gurean ia beti erdara dela beharrezkoa, oraindik ez dela “diglosia” gehien ematen den egoera soziolinguistikoa; jakin behar dugu, orobat, erredundante eta sobera gertatzea dela euskararen “ordezkapenaren” egoera normala.
- Pertsonak *gizartean nola kokatzen* diren garrantzitsua da, adibidez: prestigio handiko/txikiko guneetan, adibidez. Eta abar.

Hau da, pertsona bakoitzaren garapena eta nortasuna oso konplexuak dira, baina kontuan hartu beharrekook, besteak beste, euskararen erabilera erraza/nekeza gertatuko zaion auresateko eta azaltzeko.

2. Emozioak: prozesu psikosozial bereziak

Gaur egun *emozioek* garrantzi handia dute, ikuspegi psikologikoan eta psiko-sozialean bereziki. *Ikuspegi psikosozialean* kokatuz, bereizketa asko egin beharko lirakeke, egungo ezagutza konplexua adierazteko. Horrela, berriz ere *mugatzea eta aukeratzea* egitea beharrezkoa zaigu, nahiz eta horrela gaia sinplifikatzen den. Aurkezpen honetarako, bereiziko ditugu: 1) emozioak, *prozesu psikosozial berezi* moduan, 2) eta emozioen *kokapena ikuspegi psikosozialean*.

Emozioak, ikuspegi psikosozialean, *prozesu psikosozial berezi* moduan aztertu ohi dira. Zer diren adierazteko, bereiz daitezke zenbait alderdi: 1) definizioa, 2) ezaugarriak, 3) kausak, 4) ondorioak, 5) funtzioak, 6) motak... Orain alderdi batzuk bakarrik aipatuko ditugu.

3.1. Definizioa

Dauden definizio anitzen artean, badirudi adostasun batzuk badirela, artikulua honetarako nahikoak izango direnak, esateko: emozioa da pertsonak beti berarekin duen alderdi psikosoziala, bizi dituen esperientziekin lotzen dena eta esperientzia horiek aukeratzen eta ebaluatzen laguntzen duena; helburu nagusia da pertsonaren *zorientasuna, poza, ondo sentitzea eta erosotasuna lortzen* laguntzea. *Alderdi hauek* bereizi ohi dira:

- *Biologikoa*: emozioak beharrezko prozesuak dira bizitzan moldatzeko, esperientziak onartzeko/ukatzeko, nahiko modu automatikoan funtzionatzen dute, innatoak edo sortzetikoak dira (instintoen antzekoak), espontaneoak, ia konaturatu gabe erabiltzen dira, fisiologikoki adierazten dira (aurpegiaren bitartez, aztertuen).

- *Psikologikoa*: gizakiarengan, pertsonarengan, sortzen diren prozesuen artean (kognitiboak eta motibazionalak, bereziki), autodefentsiboenak dira, zoriontasuna ziurtatzeko daudenak, horregatik: 1) eragina dute motibazioetan, 2) eta ebaluatzen dute portaera; esperientziarekin garatzen dira, baita esperientzia bera ere gidatzen dute.
- *Psikosoziologikoa*: pertsona gizartean kokatuta dagoenez, gizartean pertsonak zoriontasuna lortzeko erabiltzen dituzten prozesuak dira: 1) batzuetan pertsonaren helburuekin gehiago lotzen dira, 2) beste batzuetan, gizartearen helburuekin gehiago.
- *Espresiboa*: komunikazioan adierazten direnak, harremanak bideratzen laguntzen dutenak.
- *Portaerazkoa*: emozioek eragina dute portaeretan: 1) aurretik erraztuz edo oztopatuz, detektatzaile moduan funtzionatuz, 2) geroztik ebaluatuz, horrela esperientzian sartuz, berriz ere esperientziaren arabera hurrengo portaeretan eragina izateko.

Oro har, gure gaiari dagokionez, *euskara erabiltzeak*: 1) zoriontasuna, poza, erosotasuna eta lasaitasuna eragingo dituen neurrian, emozioek erraztuko dute euskara erabiltzea, 2) eta alderantziz, ezbeharrak, tristura, deserosotasuna eta ezinegona sortuko dituen neurrian, emozioek zailduko dute euskara erabiltzea.

3.2. Funtzioak

Honako funtzio hauek bereiz daitezke:

- Emozioaren *funtzio nagusia* da, esan bezala, pertsonarengan gertatzen diren guztiak, prozesuak, portaerak eta nortasuna eraikitzea; pertsonaren *helburu nagusia den zoriontasuna lortzeko instrumentu* psikologiko nagusia da. *Helburu bereziak* ere baditugu, azpichelburu moduan funtzionatzen dutenak, eta horiek lortzearen alde ere egiten da. Gauza da: 1) pertsona bakoitzak dituen helburu bereziak oso ezberdinak izan daitezkeela (boterea izatea, asko jakitea, aberatsa izatea, maitagarri gertatzea, lanean arrakastatsua izatea...), 2) baita helburu horiek alda daitezkeela ere, zenbait ezaugarriaren arabera: adina (haurtzaroan lagungarria gertatzea eta helduaroan aberatsa izatea, adibidez), testuingurua, gizarte mota...
- Horrela, emozioek *detektatzaile* moduko lana egiten dute: 1) lehenbizi, gertatzen direnak helburuen *alde/kontra* dauden *ebaluatzeko*, 2) gero, *eragiteko*, *alde/kontra* egiten. *Eragina* dute, horrela: a) bai prozesuen eta portaeren *aurretik*, galbahe moduan funtzionatuz, b) baita prozesuen eta portaeren *geroztik* ere, horiek ebaluatuz eta, horrela, esperientzia garatuz. Zentzu horretan esan daiteke ezen emozio guztiak *funtzionalki positiboak* direla.
- Horregatik, gerta daiteke berez emozio negatiboak direnak, *haserrea* adibidez, modu positiboan funtzionatzea, eragin dezaketelako zoriontasunaren helburua lortzen, adibidez egoera txar batetik ateratzeko erabilgarri gertatuko delako, indar gehigarriak sortzeko askotan beharrezkoa izango delako. Horrela, euskara erabiltzeko batzuetan lagungarria izango da.

3.3. Motak

Emozioak aztertzean, bereizi ohi dira:

- *Emozio unibertsalak/periferikoak*: 1) alde batetik, *oinarrizkoak* eta nahiko unibertsalak kontsideratzen direnak: *haserrea, beldurra, tristura, poza, nazka, gozamina* eta *maitasuna*, 2) bestalde, *periferikoak*: tokian tokikoak, edo pertsona bakoitzarengan bereziagoak direnak, gehienetan oinarritzkoekin erlazionatzen direnak. Adibidez: *beldurra* emozioa oinarritzkoa da, eta halako emozio bereziekin batera ageri ohi da: alarma, konmozioa, izutzea, ikaratzea, histeria, antsietatea, urduritasuna, kezka, eta abar. Komeni da emozio bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea maneigarriak diren neurrian, zeintzuk izango diren baliagarrienak, kasu bakoitzean, jakiteko, euskara erabiltzea errazteko.
- *Emozio positiboak/negatiboak, espresio moduan* kontsideratuta: 1) *positiboak* dira zorientasuna adierazten dutenak, helburuak lortzearekin lotzen direnak: *poza, gozamina, ongizatea*, eta abar; 2) *negatiboak*, berriz, alderantzizkoak, zoritxarra adierazten dutenak, porrotarekin lotzen direnak: *haserrea, beldurra, tristura*, eta abar.
- *Emozio positiboak/negatiboak, eragile moduan* kontsideratuta: 1) *positiboak* dira helburuak lortzeko baliagarri gertatzen direnean; 2) *negatiboak*, berriz, helburuak lortzeko oztopo gertatzen direnean. Horrela, baliteke emozio bat negatiboa izatea espresio bezala, eta positiboa eragile bezala, adibidez *haserrea* emozioarekin askotan gertatzen den bezala.
- *Emozioak/gogo-aldarteak* daude: 1) *emozioak* lotuta datoz pertsonarengan gertatzen diren gauza guztiekin, prozesu eta portaera guztiekin, horrela momentuko prozesuak dira, egunean zehar milaka biziz, gehienetan konturatu gabe bizitzen baditugu ere; 2) *gogo-aldarteak*, ordea, luzaro mantentzen diren egoera emozionalak dira; askotan, antzeko emozioak luzaroan errepikatzearen ondorioak dira, horregatik eragin handiagoa dute pertsonaren nortasunean edo definizioan, pertsonaren estiloak finkatzean. Zentzun horretan, euskararen erabileran eragina handiagoa izango dute, erraztuz ala nekeztuz, momentuko emozioek baino.
- *Emozioak/sentimenduak*: ez dira modu argian bereizten, ez zientzian, ezta sen onean eta popularki erabiltzen direnean ere. Hala ere: 1) *emozioak* ia konturatu gabe azaltzen diren bezala, 2) *sentimenduak* maila esplizituagoan azaltzen dira. Oraingoz behintzat, hemen antzeko fenomeno moduan erabiltzeko ditugu.

3.4. Ondorioak

Ondorioak lotzen dira duten funtzioarekin, adibidez:

- *Sentimendu positiboak/negatiboak*, onak/txarrak, zorionekoak/zoritxarrekoak, arrakasta lortzea/porrota lortzea... sortzen dituzte.
- Antzeko egoeretan emozio eta sentimendu antzekoak ere lortzen direnean, errepikatzea gertatzen denean, orduan *gogo-aldarteak positiboak/negatiboak* sortzen dira, joera emozional iraunkorak: 1) *positiboak*, *arrakastarekin lotzen*

den triunfalismoa, ilusioa, animoa, errepikatzeko gogoia, jarraitzeko indarra, esperantzak finkatzea, eta abar; 2) ala *negatiboak, porrotarekin lotzen* den derrotismoa, frustrazioa, dezepzioa, desilusioa, desanimoa, eta abar. Ez dago esan beharrik gehienetan, a) positiboek euskara erabiltzearen alde jokatu dutela, b) eta negatiboek, alderantziz, kontra

- *Eragile aktiboak*, oro har, izaten dira: 1) *momentu bakoitzean*, sentimenduekin gertatzen den bezala, 2) *joera iraunkorretan*, gogo-aldarteekin gertatzen den bezala. Gehienetan jazotzen dena da, orokorra delako: a) emozionalki *ondorio positiboak* lortzen direnean: eragile positibo moduan funtzionatzen dutela, helburuekiko prozesuak eta portaerak bultzatuz eta indartuz, b) baina emozionalki *ondorio negatiboak* lortzen direnean, eragile negatibo moduan funtzionatuko dutela, helburuekiko prozesuak eta portaerak oztopatuz eta motelduz, euskara erabiltzean adibidez.
- Batzuetan, gerta daiteke emozioek *kontraesanezko eragile aktibo berezi* moduan eragitea, gehienetan ondorio negatiboak lortzen direnean, ondorio negatibo horien kontra egiteko ahalegin bereziak eginez, edo ondorioak berez negatiboak direnak modu positiboan erabiliz, lehenago “*haserrea*” emozioarekin adierazi nahi izan dugun bezala. Baina horrek eskatzen du ezohikoak eta gehigarriak diren lanak, gehienetan nekezak direnak. *Euskararen erabileraren* azaltzeko baliagarria zaigu hau, euskararekiko dugun *atxikimendua* ulertzeko adibidez.
- *Osasunarekin lotzen direnak* ere badira. Oro har, esan daiteke sentimenduek eragina dutela osasunean: 1) *sentimendu positiboek osasun ona* lortzen laguntzen dute, 2) alderantziz, *sentimendu negatiboek osasun txarra* lortzen. Bi ondorio horietatik landuena da osasun txarrarekin lotzen dena, batez ere oso ondorio txarrak edo patologikoak direnean, gaixotasunak sortuz. *Ondorio patologikoetan*, gutxienez bi motatako gaixotasunak bereiz daitezke: a) gehiago *medikuntzarekin* lotzen direnak, b) edo gehiago *psikologia eta psikiatriarekin* lotzen direnak, eta ikuspegi psikosozialean gehien aztertu direnak: estresa, antsietatea, depresioa eta antzekoak. Orain ez gara horretan sartuko, hala ere iruditzen zait *euskararen erabileraren zailtasunak* sortzen dituzten ondorio emozional negatiboak gertuago daudela patologiko psikologiko eta psikiatrikotik, medikuntzatik baino.

4. Emozioen kokapena, ikuspegi psikosozialean

Asko sinplifikatuz, esan dezakegu ezen ikuspegi psikologiko eta psikosozialean bereizten ditugula: 1) alde batetik, pertsonak erabiltzen ditugun *prozesuak*, 2) bestalde, pertsonak ditugun *portaerak*, 3) baita *pertsonaren definizioa* eta garapena ere, nortasuna eta identitatearen eraikuntza.

Hiru mundu psikosozial horien artean loturak daude, zentzu askotako harremanak eta eraginak sortzen direlako; adibidez: 1) bai prozesuetatik hasi, horien bitartez portaerak azaltzeko, 2) baita portaeretatik hasi, horien ondorioek prozesuetan nola eragiten duten azaltzeko, 3) aurreko guztia pertsonak nola maneiatzen duen, horren arabera pertsonaren nortasuna eta identitatea nola garatzen den azaltzeko. Zientzia egitean bereizten ditugunak, ordea, errealitatean batera

azaltzen dira. Horrek esan nahi du, *emozioak* lantzean adibidez, beharrezkoa zaigula psikologian eta gizarte-psikologian nola kokatzen diren ulertzea, errealtatearen alderdi batzuekin gehiago lotzen diren neurrian; horrela, emozioak prozesu mota bat bezala aztertzen dira, baina beste prozesu guztiekin lotura dute, baita portaerekin ere, eta pertsonaren nortasunarekin eta identitatearekin ere.

Prozesuak aztertzean, bereizten dira, oro har: 1) *kognizioarekin* eta ezagutzamunduarekin lotzen direnak: hautemateak, egozpenak, memoria, atentzioa...; 2) *motibazioarekin* lotzen direnak: helburuak jarri, plangintzak egin, intentzioak, etikotasuna, erantzukizuna (erresponstabilitatea)...; 3) *afektibitatearekin* lotzen direnak: *emozioak*, sentimenduak, gogo-aldarteak...

Gizarte-zientzietan, ikuspegi psikosozialean zehazki, bereiz daitezke zenbait tradizio, paradigma, epealdi, eta abar, bereizi ditugun alderdi horiek guztiek (prozesuak, portaerak, pertsona-erakitzea) nolako harreman eta lotura motak dituzten ulertzeko. *Emozioak* aztertzean ere, gertatzen zaigu bide ezberdinak ditugula eta aukera ezberdinak egin ditzakegula; adibidez, lotu ohi dira gehiago motibazioarekin, edo kognizioarekin, edo zuzenean portaerekin; nire ustez, emozioak lantzean hurbiltze guztiek erakusten dute zerbait interesgarria. Hala ere, orain, aukera bat egin beharrean, eta nahiz eta gauzak asko sinplifikatu, halako irtenbidea proposatuko dut: 1) *zientziagintza modernoan* emozioak nola kokatzen diren, 2) eta *zientziagintza postmodernoan* nola.

4.1. Zientziagintza modernoan

Zientziagintza modernoan, agian gehien erabili den paradigma izan da *paradigma kognitiboa* deitzen dena, hau da, izenak dioten bezala, *kognizioan* oinarriak, erdiguneak, esperantzak eta abar jartzen dituen paradigma. Oinarrian dagoen ustea da: gizakia logikoa dela, pertsona arrazoiduna dela eta gizartea ere logikoki eratzen dela eta funtzionatzen duela. Kognizioaren barruan bereizi ohi dira zenbait prozesu: hautematea, egozpena, ezagutza eskematikoa/landua, memoria, eta abar. Kognizioak, gainera: 1) beste prozesu moten (motibazioa, emozioa) arteko lotura bermatzen eta azaltzen du, 2) portaerak azaltzeko ere beharrezkoena da, 3) pertsonaren nortasunaren bilakaera, eraikitzea, motak, eta abar, berriz ere gehienbat kognizioak bideratzen ditu, 4) edozein ekintza planifikatzerakoan ere, *euskararen erabilera bultzatzea* adibidez, ezagutzarekin lotzen diren prozesuak erabili behar dira.

Hau guztia garrantzitsua da, baina bere *mugak* ere baditu, ezagutu beharrezkoak; ezagutza garrantzitsua da, baina, ezagutzeaz gain, beste gauza batzuk ere behar ditugu, errealtatean egoki funtzionatzeko eta egitasmoak ondo planifikatzeko. Muga batzuk dira: 1) ezagutzak eskematizatze joera dugula, horregatik ezagutza sakonak adituentzako beharrezkoak eta egokiak badira ere, pertsona arruntarentzako gehienetan nahikoa da ezagutza modu sinplifikatuan izatea, batzuetan hobe ere bai, egunean propagandan, publizitatean edo esloganetan egiten den antzean, jendearengan informazioak eragina izateko; 2) gauzak horrela direlako, errakuntzak eta soslaiak egitea erraza da, kontraesanak ere maneiatzeko nahiko erraza da, adibidez paradoxekin gertatzen den moduan; gainera, batzuetan soslaiak eta kontraesanak nahita egitea ere erraza da, jendearengan nahiko

sinesgarritasuna lortuz; hori horrela dela jakinda, erne egon beharra dago, gai ba-koitzean adituak direnak gehienbat: a) bai jasotzen den informazioa ebaluatzeko, b) baita ematen den informazioa egoki sortzeko eta bideratzeko; 3) plangintzak, ezagutzan oinarritu behar dira neurri batean, informazioarekin ematen direlako, baina ez da nahikoa, harago joan beharra dago.

4.2. Zientziagintza postmodernoan

Zientzigtza postmodernoan, berriz, beste azpimarratze batzuk gertatzen dira, oraingoan *emozioak* gehienbat landuz. Adibidez: 1) emozioak *oinarrizkotzat* jotzen dira, honako usteak erabiliz: gizakiaren arrazoi nagusia zoriotsu bizitzea dela eta ez asko ezagutzea, pertsona emozionalki gehiago garatzen eta definitzen dela, gizarteek ere emozionalki gehiago eratzen eta funtzionatzen dutela, kognitiboki baina; 2) askotan *ezagutzak* emozioen menpe edo bitartez lantzen dira, nahiz eta horrek suposatu ezagutzak soslaituak izango direla, eta izan behar dutela ere neurri batean, betiere ezagutzek ere baliagarriak gertatu behar dutelako zorientasunaren helburu nagusia lortzeko, edo zorientasuna lortzeko pertsonak (gizarteak ere) jar-tzen dituzten helburuak betetzeko; 3) *motibazioak* ere beste moduan interpretatzen dira orain, berriz ere emozioekin indarrez lotuz eta emozioen menpe jarritz; 4) horrela, ez da harriztekoa *portaerak* aztertzeke, azaltzeke eta planifikatzeko ere, emozioak gehiago erabiltzea, ezagutzak baina, eta motibazioak emozioen helburuekin gehiago lotzea; 5) guztiagatik, egitasmoen eta ekintzen helburuak eta *planifikazioa* erabakitzean uste izaten da emozioak erabat baliagarriak direla.

4.3. Inteligentzia emozionala

Egunean badaude saiakerak *bi zientziagintza mota horiek lotzeko*, bien arteko eredu berriak eraikitzeke. Horien artean arrakasta handia lortu duena da *inteligentzia emozionala* izenarekin zabalitzen ari den teoria: nor ez du ezagutzen D. Goleman autorearen libururen bat?

Oraindik gehiago da teoria bat, paradigma bat baina, nire ustez behintzat, hala ere adierazgarria da zientziagintzan jazotzen ari diren aldakuntzak ulertzeke. Interesgarria da ikustea, orobat, nolako gaiak lantzeke erabiltzen ari den teoria hau; Goleman autorearekin jarraituz, gehienbat: 1) lan-mundua, 2) pertsonaren zorientasuna lortzearen bitartez, lanean efikazagoa izatea lortzea, 3) lan-munduaren helburu berezitat jotzen den produktibitatea handitzaren lorpena neurtzean, bi alderdi hauek bereiztea: a) pertsonen ongizatea, b) enpresaren produktibitatea bera, horren oinarritzko ustea delako bien bitartez lortzen dela zorientasunaren helburua bi mailatan. Teoria hau ez da inozoa, edo neutroa, noski, baina orain ez naiz horretan sartuko; gauza da badirudiela arrakasta duela, psikologikoki posible dela, efikaza gerta daitekeela lan-mundutik kanpo ere agian, eta horregatik kontuan hartu beharkekoa da ere orain guri dagokigun gaia: “euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna” ulertzeke, eta beren “ondorioak” ere ulertzeke, “gaia” “egitasmo” bihurtzea nahi badugu eta egitasmoa egoki planifikatu.

4.4. Ondorioa

Egungo gizarte-zientzietan, oro har, eta gizarte-psikologian konkretuki, egoera oso konplexua da, horregatik beharrezkoak dira: 1) dauden teorizazio anitzean “*zer den zertarako*” *baliagarria* diskriminatzen jakitea, 2) ondoren, baita *gai bakoitza lantzerakoan zer aukeratu behar den, edo diren*, egoki erabakitzen jakitea ere.

Gaiak ere nahiko konplexuak direlako, batzuetan zentzuduna da gaiaren alderdi bakoitzeko teorizazio berezia aplikatzea. “*Euskara erabiltzea*” gaira etorruta, nire ustez oraindik gutxiegi dakigulakoan, beharrezkoa ikusten dut: 1) alde batetik, *gaiaren alderdiak ondo bereiztea*, gutxienez diskriminatzeko: a) erraz *eragin* daitezkeenak, planifikatzeko egokienak izango direlako, eta b) *eragingarri direnak*, kasu honetan euskara erabiltzea bultzatuko dutenak, plangintzarako helburuekin zuzenean lotzen direlako; 2) bestalde, gaiaren *alderdi bakoitzeko nolako teorizazioa aukeratu beharko litzatekeen erabakitzea* egoki egiteko.

Horrela, batzuetan egokiagoa izango da helburuak lortzearekin lotzen diren motibazioak gehiago lantzea, beste batzuetan helburuak lortzearen ondorio emozionalak gehiago lantzea, eta abar.

5. Euskara erabiltzearen erraztasunaren/zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak

Orain iritsi gara hitzaldiko azken atalera: noski nekezena dena niretzako, baina zuek gehien itxaroten duzuen, agian. Hitzaldiaren helburua ez da, ordea, errezeta modukoak ematea, baizik eta gaiari buruz: 1) *hausnarketak* egitea eta *proposamenak* aditzera ematea, 2) horiek baliagarri jotzen diren neurrian, *eztabaida* sortzea eta zabaltzea (adituen artean adibidez, berauek inplikatur), 3) eztabaidaren ondoren, ziurtasun handiagoarekin *gaia egitasmo bihurtzea* bultzatzea, 4) egitasmoa bera *egokiago planifikatzeko*, inplementatzeko eta ebaluatzeko lagungarri izatea. Hala ere, gaiarekin betiere lotuz, azkeneko ideia batzuk esango ditut ondoren:

5.1. Ikuspegi psikosozialaren garrantzia azpimarratzea

- Euskararen erabilerarekin lotzen diren fenomeno guztiak adierazteko behar ditugu mota ezberdineko *eredu teorikoak*: 1) *makroak* edo zabalak, gizarteari dagozkionak, gurean Euskal Herriari dagozkionak, soziologoek egiten dituztenak adibidez, 2) baita *mikroak* edo partikularragoak ere, pertsonari dagozkionak, ikuspegi psikosozialak eskaintzen dituztenen modukoak adibidez, orain “*emozioen*” inguruan egiten saiatu garen modukoak. Denok dakigu eguneko euskararen erabileraren arrazoi nagusiak direla: ukipen-egoeran egotea, ukipenean mendeko eta gutxiagotuen egoeran egotea, euskara beharrezkoa izan ordez, soberakin gertatzea, nahitaezkoa izan ordez, hautazkoa izatea, eta abar; baina horrekin bakarrik zaila da pertsonenganaino iristea, pertsonekin gertatzen direnak erabat ulertzea, pertsonengan eragina izateko nola egin jakitea, eta abar.
- Erabili behar ditugu *lege unibertsalen* modukoak, *joera orokorrak* adierazten dituzten fenomenoak azaltzeko. Ikuspegi psikosozialari jarraituz, batzuk dira: 1) *ekonomi legea* deitzen dena: ahalik eta modu errazenean, ahalik eta

ondorio aberatsenak lortzea; *kognizioarekin* lotu ohi da gehienbat; horrela uler daiteke, adibidez, euskararen ezagutza maila erlatiboki handia eta askotarikoa izan beharra, modu errazean eta naturalean erabili ahal izateko; 2) *auto-onuragarriaren legea* deitzen dena: egiten ditugunak dira instrumentalki norberaren probetxurako gertatzen direnak; *motibazioarekin* lotu ohi da gehienetan; horrela, adibidez, uler daiteke neurri handian euskara erabiltzea gutxitan aukeratzea; 3) *auto-zoriontasunaren legea*: egiten ditugunak dira, instrumentalki berriz ere, norberaren zoriontasunerako baliagarriak gertatzen direnak; hau gehienbat *emozioarekin* lotu ohi da; berriro ere errepikatuz: honen arabera ere euskara erabiltzea askotan zailegia gertatzen da; 4) *auto-efikaziaren legea*: egiten ditugunak dira, ditugun helburuak lortzeko efikazek kontsideratzen ditugunak; *portaera-munduarekin* lotu ohi dira gehienbat; eta abar. Horrela, galdera da: nola egin euskara erabiltzea zerbait ekonomiko, onuragarri, zoriontsu eta efikaz gertatzeko?

- Erabili behar ditugu, orobat, *joera bereziak* azaltzen dituzten *ondorio teoriko partzialak*: zenbait kasutan euskararen erabilera zaila bada ere, mirarizkoa askotan, erabiltzen da, eta oraindik ere gehiago erabil daitekeela pentsa dezakegu, eta hori zergatik gertatzen den, edo gerta daitekeen, ulertu beharra dago, euskararen erabileran eragiteko baliagarria delako. Dakigun neurrian: 1) *euskararekiko atxikimendua eta identitatea* dira modu orokorragoan, 2) edo *euskararekiko militantzia* da modu bereziagoan, gurenean; horrek esan nahi du, hauek nola funtzionatzen duten ikusi behar dugula. Baina galdera da: iraunkorrak al dira halako joera ezohikoak? *Identitatearen teoria*, adibidez, nahiko ezaguna eta baliagarria zaigu; agian egokia zaigu, identitatean nahiko ondo lotzen direlako: a) alde batetik, kognizioarekin, motibazioarekin eta emozioarekin gertatzen diren prozesuak eta egiten diren portaerak, b) beste alde batetik, euskarak gure egoeran dituen ezaugarri nagusi batzuk, gurean funtzionatzen duelako kategori eta taldetasun nagusi moduan, baliagarria gertatzen delako; identitearekiko galdera da: noraino da maneigarria?

5.2. Euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna

Erraztasunak mugatuak dira, pertsonarentzako, gure testuinguruan; hala ere, ikusi beharko litzateke zeintzuk diren bete beharreko baldintzak euskara ahalik eta modu errazenean erabili ahal izateko. Zentzu horretan, *tipologia* modukoa egin beharko litzateke, mota bakoitzaren ezaugarriek auresan dezaketelako noraino izango den erraza/nekeza euskara erabiltzea, eta zeren arabera izango den erraza/nekeza. Adibidez:

- *Euskararen ezagutza motaren arabera*: 1) ezagutza arrunta eta askotarikoa izatea, bizitzarako baliagarria dena, emozioarekin gehiago lotzen dena, 2) ala ezagutza berezia eta mugatua izatea, motibazioarekin gehiago lotzen dena, adibidez hezkuntzarako edo lanerako baliagarria dena; zentzu horretan, badirudi egoera kontraesankorrek azaltzen direla, teorikoki ikusita behintzat: a) nola ulertu erraza izan beharko litzatekeen ezagutza berezia erabiltzea, nekeza gertatzea, administrazioan adibidez?; b) edo nerabe euskaldunek ezagutza arrunta ala berezia lortu al dute gehiago, eskolatik kanpo erabiltzea nekeza bazaie?

- *Adinaren arabera*: 1) haurtzaroa errazagoa da helduaroa baino, besteak beste, alderdi psikosozialek garrantzi txikiagoa dutelako; 2) garai bakoitzean (nerabea, gaztea, heldua... izatea) ezaugarriak bereziak dira, adibidez motibazioarekin eta emozioarekin lotzen diren ezaugarriak: helburuak, esfortzua, sentimenduak, arrakasta motak, taldetasunaren beharra, eta abar. Adin bakoitzaren ezaugarriak aprobeitza daitezke, euskara erabiltzearen helburua lortzeko.
- *Komunikazio motaren arabera*: 1) informaziorako gehienbat izatea, arautua dena, ala artekotasuna eta adierazgarritasunerako izatea, libreagoa dena; 2) testuinguru publikoan ala pribatuan komunikatzea; eta abar.
- *Aukeraren arabera*: 1) euskararen erabilera hautatzea pertsonarentzako posible denean, agian emozioek pisu handiagoa izango dute, 2) baina nahitaezko gertatzen denean (gutxitan, egia esan), efikaziak izango du pisu handiagoa.
- *Gune funtzionalaren arabera*: familian, lagunartean, lanean, aisialdian, administrazioan... Gune bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu beharko lirateke.
- *Ikuspegiaren arabera*, edo nolako ikuspegia nagusitzen den; adibidez: 1) *arau soziolinguistikoak* nagusitzen badira: a) egoera arruntetan euskara erabiltzea nekeza izango da, adibidez, nahikoa delako multzoan batek euskara ez jakitea multzo osoa erdarara pasatzeko; b) baina egoera berezietan, esaterako artikulua hau aurkeztu zen mintegian, aurretik esplizituki adostuta eta adierazita dagoelako, euskara erabiltzea erraza izango da; 2) *arau psikosozialak* nagusitzen badira: gorago aipatu diren lege psikologiko unibertsalek izango dute eragin nagusia, erraza/nekeza izango den ikusteko.

5.3. Erraztasunaren/zailtasunaren ondorioak

Berriz ere, *mota ezberdinetako* ondorioak bereiz daitezke; orain, honakoak adieraziko ditugu:

- *Ondorio arruntak eta normalak* badira: 1) *erraztasuna* gertatzen denean, eta erraztasuna aprobeitxatzen denean, euskara erabiliko da; alderantziz, *zailtasuna* gertatzen denean, ez da erabiliko; 2) baita, askotan erabiltzen denean, *ohikoa* izatea gerta daiteke ere, eta ohikoa izateak erraztasuna indartuko du; alderantziz, *ohikoa* ez denean, gehienetan esplizituki erabaki behar bada, orduan nekeza gertatuko da, ohikoa izatearen baldintza erdarak beteko duelako.
- Beste mota batzuetako *ondorio arruntak eta normalak* ere badira: 1) *erraztasunarekin*, asko erabiltzearekin, lortzen dira euskararekiko ditugun helburuak, besteak beste: a) *helburu psikosozialak*: zorientasuna eta sentimendu pozgarriak lortzea, adibidez; b) *helburu sozialak*: prestigioarekin lotzen direnak, adibidez; c) *helburu politikoak*: normalizazioa eta horretarako erabakiak eta baliabideak adostea erraza gertatzea; d) *helburu ekonomikoak*: merkea izatea, euskararen balio erantsia ziurtatzea, eta abar. 2) Baina daude ere *zailtasunarekin* lotzen direnak, adibidez: a) *psikosozialki*: sentimendu negatiboak eta patologiak; b) *sozialki*, soberakin gertatzea, hau izanik hizkuntza

galtzeko arrazoi eta bide nagusietako bat; c) *politikoki*, normalizaziorako bidea oztopatzea; eta abar.

- *Ondorio bereziak eta ezohikoak* ere badira, ondorio arrunten ondoan, gure kasuan azaltzen direnak ere: 1) nahiz eta nekeza izan, euskara erabiltzen denean; adibidez, gorago aipatu dira *atxikimendua*, *identitatea*, *militantismoa*...; horrelakoetan: a) atxikimenduak eragiten du euskara erabiltzea, b) baina alderantziz ere, euskara erabiltzea lortzeak, nekeza denean, atxikimendua bera indartzen du, berriro ere euskara erabiltzearen alde jotuz. 2) Baina gurean alderantziz ere gertatzen da: nahiz eta euskara erabiltzea erraza izan, itxuraz behintzat erraza, lagunarteko komunikazio-gertaera batean denak euskaldunak direnean adibidez, baina erdara erabiltzen denean; hau gurean gutxiago aztertuta badago ere, horrelako jokabidearen arrazoa da, gazteek esanda, ez dutela *ohiturarik*.
- Nire iritziz, dugun egoera nolakoa den ikusita, *ondorio arruntak eta bereziak edo ezohikoak*, *biak*, kontuan hartu beharrean gaude, pertsonen euskararen erabilera bultzatzeko: 1) zailtasunetik erraztasunera pasatzeko, batzuetan, 2) erraztasunak gehiago aprobetxatzeko, beste batzuetan. Ondorio batzuk ezagutzen eta aipatu ditugu, baina beste batzuk ere bilatu, aztertu eta kontuan hartu beharko ditugu. Gurean badaude jadanik saio berri interesgarriak eraikitzen; adibidez, honen guztiaren eztabaidarako baliagarria gerta daitekeen mintegi hau berau.

5.4. Azken hausnarketak

Artikuluak bukatzeko, azken hausnarketa batzuk egingo ditut:

- Artikuluan sartu gara *ikuspegi psikosozial psikologistaren* munduan: alderdi onak ditu, besteak beste: 1) *pertsona* hartzen duelako analisi eta aplikazio maila nagusizat, 2) baita gurean agian gutxien landu diren ikuspegi eta maila direlako ere. Nahiz eta jakin ikuspegi hau ez dela nahikoa, behar-beharrezkoa dugu, gero eta beharrezkoagoa dela esatera ere ausartzen naiz.
- *Euskara erabiltzea helburua* gauzatzeko, hizkuntza-plangintza egiterakoan, mota guztietako ezaugarriak kontuan hartu behar dira: gaiak eta azpigaiak, ikuspegi zientifikoak, aplikazio mailak, teoria orokorrak eta bereziak, joera arruntak eta ezohikoak, eta abar; kasuan kasu, erabaki beharko da egokiena uste duguna. *Emozioak* gehienbat lantzea ere batzuetan egin beharko da.
- *Emozioak azpimarratzea* (zoriontasuna, ondo sentitzea, pozik egotea...) baita oraingo gaia aztertzeko ere (euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna), gaur eguneko zientziagintzako estiloan zuzenean sartzea da, soziolinguistika eguneratzean beharrezkoa: hona hemen psikologiaren eta gizarte-psikologiaren ekarpen bat soziolinguistikari. Emozioek balio dute pertsonarengan azaltzeko: 1) *motibazioek* nola funtzionatzen duten, nolako helburuak onartuko dituen pertsonak, emozioek galbahe moduan funtzionatuz: zoriontasuna lortzeko baliagarriak izango diren helburuak, 2) *portaerek* ere nola funtzionatzen duten, onartzen diren helburuak lortzeko, arrakastatsu gertatuko diren ekintzak planifikatu eta inplementatzeko, 3) portaeren emaitzak ebaluatzeko, helburuak lortzearekin norainoko *zoriontasuna* ziurta-

tzen/oztopatzen den ikusteko, 4) ziurtatze/oztopatze ondorioek norberaren *esperientzia* garatzen dute, 5) esperientziak sortu eta garatzen ditu *ohiturak*, 6) ohiturek errazten dituzte emozioak, berriro ere motibazio batzuk gehiago erabiltzea... Hau da, emozioak gertatzen dira guztiaren erdigunean. Eta gehienbat horrela da *hautazko egoeretan*, euskara erabiltzearekin gertatzen den bezala.

- Iruditzen zait oraindik asko dugula jakiteko eta egiteko. Horregatik, ditugun egin beharrekoen artean bat aukeratzearren, *honako proposamenarekin bukatu nahi dut* artikulua: behar ditugun ideia berriak sortzen laguntzeko, *adituen inplikazio handiagoa* lortu beharko dugula esan nahi dut, aditu anitzen inplikazioa, euskararen gaia oro har, eta hemen landu dugun azpigai partikularra ere, oso konplexuak direlako: 1) gaiak eta azpigaiak zehatz aztertu ondoren, 2) proposamen zehatzak ere egin ahal izateko.

